



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




agindu hitzeman, prometitu	Ez ezak nitaz hitz egin nire bizkar. Agintzen al didak? –dio Tylerrek. — Agintzen diat.	95
ahalik eta -en albait -en	— Jo nazak, ahalik eta gogorren.	60
ahantzura oroitapena galtzea	Orain egin beharko nukeen negar, une horretan bizitza ezereza bihurtu baita, ahantzura .	16
ahur esku barrua	...eta minutu perfektu horretan Tyler eserita egon zen berak sortutako perfekzioaren ahurraren gainean.	40
akituta nekatuta, unatuta, indar gabe	Akituta daudenean, gizon-emakumeak elizara joaten dira.	296
alaena halakoa (indargarria)	Marla, iruzurti alaena , ospa hemendik.	27
alberjinia berenjena	...xehatutako alberjinia more bat dirudien sudurraren goitik begiratu behar baitizu irribarre egiteko.	215
amalgama ore nahastua	Zilar amalgamaz betetako beste bi hagin azaleratu dira. Masailezur bat da.	185
amesgaizto lokamutsa, beldurrezkoa	Batzuetan, Tyler gauaren iluntasunean esnatzen da, amesgaiztoengatik dardaraka...	34
apeta gurari berezia, kapritxoa	Apeta bat izan zen.	289
arbeltza pizarra	...honako kolore hauetan eskuragarri. Orkidea. Fuxia. Kobaltoa. Ebanoa. Arbeltza .	56
arretagune deigarria, arreta erakartzen duen	...kopa pare bat hartu eta gero denak sentitzen dira arretagune , baina,aldi berean, bakartuta inorekin ezer partekatze.	116
artesi arraila, arrakala, marra	Boben ile hori lodiek (...) "espuma moldeatzaila" deitzen duten hori erabili ondorengo itxura zuten: oso lodi, oso hori eta erdiko artesia oso zuzena.	15
astapito traketsa, dorpa	...Marla etxean egongo da seguruenik, hormen kontra aldizkariak botaz, garrasika esanez astapito bat naizela...	124
astigar zuhaitz mota (arce)	Beraz, zorua astigar egurrezkoa izan arren eta etengailuek argien intentsitatea erregulatzeko aukera eduki arren...	52
aztoratu arduratu, kezkatu	...azkenean neu ohartu nintzen aztoratzera iritsi gabe onar nezakeela funtzionatzen ez zuen guztia...	70
balazta-forro frenuen estalgarria	Badakit balazta-forro faltsuena, erosketa-agentea pasatzeko aski itxura ona zutenak baina huts egiten zutenak lau mila kilometroren ostean.	130
barrabil koskabiloak	Nik barrabiletako minbizia, odoleko bizkarroiak eta burmuineko dementzia organikoa mantenduko ditut.	48
behazun isurkari mingotsa, gibelarena	Hori guztia entzun ahal, Joeren behazun xixku bihurtu naiz erabat. Nire errua da guztia.	76
behazun xixku besikula (gibel azpian)	Hori guztia entzun ahal, Joeren behazun xixku bihurtu naiz erabat. Nire errua da guztia.	76
bekozko kopetilun egon, beltzuri	Zabal-zabalik dauzka begiak, baina ez du ez irribarrerik ez bekozkorik .	31
belarri-gingil belarri lobulua	Belarri-gingilak belarritako-zuloen inguruan tolesten dira.	48
belaxka txepela, biguna	...bai, inutila nauk, odolgabe bat eta belaxka bat, baina oraindik ere hire ardura nauk.	153
beldurra eragin izutu	Tipo gehienak borrokatzeko beldur handiegia eragiten dien zerbaitegatik daude Borroka Klubean.	71
bermatu apoiatu	Kostata jarri zen zutik, eserlekuko egurrezko besoetan bermatuta , eta esan zigun dagoeneko ez zela heriotzaren beldur.	44




berme ziurtasuna, garantia	Nolabaiteko bermea nahi dugu.	254
berriketaldi hizketaldia, solasaldia	Eguneratzeko berriketaldietan , norbaitek kontatuko du agentea bizkarrean barrena zabaldu zaiola.	44
betiereko eterno	...Tylerrek pistola bat dauka nire aho barruan indarrez sartuta, esanez heriotza dela betiereko bizitzarako lehen urratsa.	9
bilgor gantza (sebo)	Ur gutxiegi jarriz gero, gantza ilundu egingo da bilgorretik bereizten denean.	90
bilkari rolloa	Etxean, armairu baten barruan, bi metroko bilkariak dauzkagu...	75
bizarra egin afeitatu	Borroka egin genuen aurreneko gaua igande bat izan zen, eta Tylerrek ez zuen asteburu osoan bizarra egin .	70
bizarra txukun egin oso ondo kenduta	Eta, horra hor, niri begira dago, aurpegi erdia bizarra txukun eginda eta beste erdia ubeldu maltzurrez ilunpetan ezkatatuta dudalarik.	72
bizkarroi parasittoa	Nik barrabiletako minbizia, odoleko bizkarroiak eta burmuineko dementzia organikoa mantenduko ditut.	48
blai bustirik	Kokots handia bularrean pausatuta eta begiak malkotan blai . Oinak arrastaka, belaunak elkarren ondoan zeramatzala eta pauso ikusezinak emanez...	22
bost ardurarik ez, axolarik ez	Loratu ta hil / Haizea firin-faran / Harriari bost	87
bostekoa eman eskua eman, agurtzeko	...hala ere, jende hori zugana dator eskua prest duela bostekoa emateko , eta zure izena jartzen duen txartelean iltzatzen ditu begiak.	44
burrunba danbada, zarata	Tiro batek egiten duen soinu gehiena hedatze-gasak dira, bestela burrunba ñimiño hori dago, balak ateratzen duena.	9
buxatu itxi, trabatuta geratu	...korrika batean zeharkatu zuen bere gorputzeko labirintoa: buxatzen ari ziren zainak, linfa beroa isurtzen zuten hodi lehertuek.	46
dario isurtzen zaio	Tyler goiko solairuan dago, eta sukaldeari zigarrokinen eta erretako ileen usaina dario .	85
dementzia zoramena, eroturik egotea	Nik barrabiletako minbizia, odoleko bizkarroiak eta burmuineko dementzia organikoa mantenduko ditut.	48
deuseztatu ezereztu, suntsitu	—Nire jabetza deuseztatzen duen askatzailea —dio Tylerrek— nire izpiritua salbatzeko ari duk borrokan.	147
dirdiratsu brillante, argia printzekin	...Bob Handiaren besoak elastikoaren mahuketatik ateratzen dira, giharrak puztuta baitauzka eta, hain gogor puztuta, dirdiratsu ageri baitira.	131
doministiku egin usin egin, eztl kolpea egin	...zopatan pixa egiten aritu nintzela kontatu nion, <i>crème brûlée</i> -etan puzkerra egiten, endibia frijitueta doministiku egiten ...	152
drainatu likidoa (ura...) atera	...medikuak esan zion onena bular-giharretan ebaki bat egin eta likido guztia drainatzea zela.	24
egiaz benetan	Pistolaren kanoia eztarri-hondoaren kontra estutzen didala, honela dio Tylerrek: — Egiaz , ez gaituk hilko.	9
egundoko itzela, mundiala	Galdetu nola egiten den sarin-gasa. O, eta bonba-auto horiek guztiak: egundokoak .	12
egundoko txortaldi larru-jotze itzela	...telebistaz futbol amerikarra ikustea da pronografia ikusten arituko bazina bezala egundoko txortaldiaz gozatzen egon beharrean.	66
eho birrindu (kafea)	Apalak ziape mota desberdinez bete nituen: batzuk harriz ehotakoak , beste batzuk pub ingeles estilokoak.	58
ehorzket hobiratzea, lurperatzea	Nire ehorzketarako dirua. Monasterio budistetako kontu zahar horietako beste bat da hori.	176
ehortzetxe funeraria	Ehortzetxe batean egiten nian lan, hobetu sentitu ahal izateko, arnasten nuela sentitzeko.	49




eraiспен erasketa, derriboa	Eraispен taldeak lehen karga aktibatuko du, beharbada zortzi minutu barru. Lehen kargak oinarrizko karga zartaraziko du...	12
ergel memeloa, leloa, tentela, papaua	Eta ergel baten moduan egin dut barre, berriz ere.	156
erlamando erle arra, emeak baino handiago	Erleek jai / Erlamandoek ere / Esklaborik ez	83
erne egon adi egon, atezuan	...puntu zuriak noiz agertzen diren erne egon behar duzu. Hori da abisua.	32
erorixe egon makal xamar, flojo	Atzo gauekoa melanomaren taldekoa zen, eta ni erorixe nengoen .	76
eskuila zepilloa	...ahoa garbitzeko likido pota ttikia eta behin bakarrik erabiltzekoa den hortzetako eskuila .	
eskupeko propina (erremusina: limosna)	Eta badakitenez ezin zaitzaketela eskupekoarekin mehatxatu, beraientzat labezomorro bat baino ez zara.	105
etengailu kisketa	Beraz, zorua astigar egurrezkoa izan arren eta etengailuek argien intentsitatea erregulatzeko aukera eduki arren...	52
etsitu onetsi, ondo hartu	Horren gogor ari gara beti lanean, hauxe baitut benetan erlaxatu eta etsitzen dudan leku bakarra.	18
ez ahal naiz ojala ez ...	Ez ahal naiz inoiz gauzatua sentituko! Ez ahal naiz inoiz asetuko! Ez ahal naiz inoiz perfektua izango!	59
ezleku toki desgekia	Esnatu, eta ezlekuan zaude.	40
ezpal zur edo egur zatiak	...nire Njurunda mahaitxo praktikoak leherrarazi zituen (...). Bada, ezpal baino ez iren orain.	55
firin-faran alfer antzean, ganora barik	Loratu ta hil / Haizea firin-faran / Harriari bost	87
freoi gas mota, hozgarria	... freoizko sprayak isuri zituzten sarrailetako zilindroak hausteko...	163
galtza praka	...Chloe izenekoa, galtzen ipurdialdea zintzilika izaten duena, graziarik gabe, hutsik.	20
gantz bilgorra (sebo)	Oilaskoaren gantzak edo gaziagia den edozein gantzek ez dik balio.	121
gar sugarra, su hartuta	Garretan dagoen mahai bat pixkanaka-pixkanaka agertu da...	249
garatxo pikorta, granoa	Spray-lata hartatik pixka bat gehiago isuri zuen guztiz desegin gabe zegoen garatxoan .	138
gernubide txiz egitekoa, uretra	Lanera noa, eta nire begizulo jipoituek ogi-opil beltz puztuak dirudite, erdian gernubide moduko zulo batekin, bertatik ikusi ahal izateko.	83
gertuen hurren, hurbilen	Horixe da ia-ia astebetean lokartze zoritik gertuen egon naizen unea.	16
giltzatuta trabatuta, korapilatuta	...bi buruak belarria belarriaren kontra dituztela, borrokalarien modura: bata bestean giltzatuta .	17
glasatu geruza batekin estali	Belarrietakorik ez. Ezpaina, pitzatuak, azal hilez daude glasatuak .	48
halako hiru hiru bider gehiago	...eta azido horri azido sulfurikoa gehitu, kopuru hori halako hiru .	10
hanpadura handitua, inflamazioa	...eta begia odoletan eta hanpaduragatik erabat itxita gelditu zitzaidan arte.	67
hats arnasa, airea	...haren altueraren bikoitza zuen kontulari bat ostiko batez hatsik gabe utzi zuenean, ondoren haren gainean harri eta...	63




hats kirasdun hats zantarra, jasanezina	Ez zure ekipajeak, ez zure hats kirasdunak , ezerk ez du axola.	38
hatsanka hots arnasestua, arnasketa larria	Marmar eta hatsanka hotsa entzuten da Borroka Klubean, gimnasioan bezalaxe, baina Borroka Klubean kontua ez da lerden egotea.	68
hertsatuta sakatuta, konprimituta, estututa	Txapal-txapal utzi behar dugu gelignita, eta hondar-zakuekin hertsatuta , zutabearen kontra egin dezan eztanda...	12
hilotz gorpua	Hilketa-misterio ingeles bateko hilotza zara.	116
horditurik lelotuta, alderoka	...lo faltak horditurik baina ez mozkorturik, eta gorbata jantzita, inguruko jendearen harridura entzunez, nork egingo zuen halakorik.	163
hurrupaka xurgatuaz	Gure inguruko bikoteak malkoak lehortzen ari dira, hurrupaka .	49
idorreria sabela libratzeko zailtasuna	...Tylerrek esan zuen musika altuak idorreria eragin ziola.	116
ile-txima ile xerloa, ile sorta	Gorputza hondarrez betea zuen, eta ile-tximak aurpegira erortzen zitzaizkion, heze eta nahasirik.	39
iltzatu sartu, txertatu	Sabelean iltzatu zidan oinetakoaren orpoa.	70
intziri aienea, kexa, erosta	Negarrez ari hintzen, zotinka eta intzirika .	209
irabiatu nahastu bueltak emanez	Irakiten dagoen ura irabiatu dut.	92
irainka laidoak eginez, mespretxuzkoak	Ikusleak zure kontra ari dira irainka . Ikusleak, bai, beren ametsetako filma zapuztuta gelditu delako...	33
iraungi balioa galdutakoa	Goi heziketako ikasle-txartel iraungi bat...	210
irmo sendo, tinkotasunez	Guztiak norbaitengana irmo lotu nahian eta bere beldurrik gaiztoena partekatzeke ausardia erakutsiz.	26
iruzurti engainatzailea, tranpatia	Marla, iruzurti alaena, ospa hemendik.	27
itsasgarri atxikitzen den orea	... itsasgarri edo mortero moduko bat, une eta xehetasun desberdin asko elkarrekin lotuko zituena.	289
kako-kolpe kroka, garfio kolpe, behetik gora	Arnasa hartu eta kako-kolpe bat marrartzuz, eman nion ukabilkaz Tylerri matrailean.	69
kamuts ez zorrotza	...ez irudikatu leiho-koska tripa alderik alde irekiko dizun labana kamuts gori bat balitz bezala.	257
kirioak galdu nerbioei ezin eutsi	— Kirioak galtzen badituk hondoa jo aurretik —dio Tylerrek—, ez duk inoiz lortuko.	92
kiskali gutziz erre	...eraikinaren labarrekiko hormigoï kiskalia ireki duen zulo suntsitu bat bihurtuz.	53
koskor txuntxurra, bultoa	...baina gaur goizean bere burua aztertu du, eta koskor bat zuela iruditu zaio...	135
kukubilko pikotxean, makurtuta, kokoriko	...tximino astronauta bat kukubilko jarri da linolio hautsiaren gainean.	231
kurruskatsu kurruskaria, kurru egiten duena	...galtzetan odol lehortuzko orban beltz handi eta kurruskatsuak ditudala, KAIXO esaten diet laneko guztiei. KAIXO!	84
labar ertza, altuera handikoa	...eraikinaren labarreko hormigoï kiskalian ireki duen zulo suntsitu bat bihurtuz.	53
labezomorro intsektu zapala (cucaracha)	Eta badakitenez ezin zaitzaketela eskupekoarekin mehatxatu, beraientzat labezomorro bat baino ez zara.	105




lardaskatu aldrebestu, mugituaz	...zopa lardaskatu duen gizagaixo desorekatu huts bat baino gehiago izango nintzateke.	154
larru-arras moztu motx-motx (rapado, al cero)	...tximino astronauta guztiak larru-arras ari direla mozten buruko ilea...	215
leiho-koska leiho ertza, irtenukea	...ez irudikatu leiho-koska tripa alderik alde irekiko dizun labana kamuts gori bat balitz bezala.	257
lepauztai klabikula	Albo bateko lepauztaia kraskatzen entzun dut.	269
lerden dotore, guapo-guapo	Marmar eta hatsanka hotsa entzuten da Borroka Klubean, gimnasioan bezalaxe, baina Borroka Klubean kontua ez da lerdan egotea.	68
lerratu desplazatu, arrastaka bezala	Oinak arrastaka, belaunak elkarren ondoan zeramatzala eta pauso ikusezinak emanez, Bob sotoko zoruan zehar lerratu zen nire gainera erortzeko.	22
linfa likido organikoa	...korrika batean zeharkatu zuen bere gorputzeko labirintoa: buxatzen ari ziren zainak, linfa beroa isurtzen zuten hodi lehertuek.	46
linolio zorurako geruza materiala	...tximino astronauta bat kukubilko jarri da linolio hautsiaren gainean.	231
lokatu egonkortasun gabe utzi, atera	Hartu bat eta sorbalda lokatuko duzu. Hain dira pisuak.	31
makurdura forma okerra	...isuri lodi bat pistolaren kanoian behera irristatu, katuaren makurduran bihurritu, eta nire hatz erakuslearen gainean desegin zen.	207
maltzur faltsua, azpikeriazkoa	Eta, horra hor, niri begira dago, aurpegi erdia bizarra txukun eginda eta beste erdia ubeldu maltzurrez ilunpetan ezkutatuta dudalarik.	72
marmar zurrumurrua, ahapeka hizketan	Marmar eta katsanka-hotsa entzuten da Borroka Klubean, gimnasioan bezalaxe...	68
marmoka itsasoko izakia (medusa)	Goiz batean, erabilitako kondoi bat aurkitu nuen komun zuloan igeri, hildako marmoka bat zirudiela.	73
masailezur baraila	Zilar amalgamaz betetako beste bi hagin azaleratu dira. Masailezur bat da.	185
maskor oskola, bibalboen azala	Super-petroliontzietako zaborra libratzen duten maskorrek ireki, eta itsasoan dauden olio-putzuei estalkia kendu.	167
matrail masaila	Arnasa hartu eta kako-kolpe bat marraztuz, eman nion ukabilkaz Tylerri matrailean .	69
melanoma azaleko tumorea (minbizia)	Atzo gauekoa melanomaren taldekoa zen, eta ni erorixea nengoen.	76
mormoi talde erlijioso bateko kidea	...berriz esaten baitzuten mormoien legean ez zegoela haiek Provo hirian sortutako borroka kluba debekatuko zuen ezer.	286
mortero kanoi mota	...gizon bat kanoi batetik atera den bezala, misila morterotik irteten den bezala, zuen esperma bezala, norabide batean.	165
mortero karezko oreka edo masa	...itsasgarri edo mortero moduko bat, une eta xehetasun desberdin asko elkarrekin lotuko zituena.	289
nahaspilatu dena korapilatuta	Irudikatu arrantza egiteko pita bat hondartzan nahaspilaturik .	61
ñimiño oso txikia	Tiro batek egiten duen soinu gehiena hedatze-gasak dira, bestela burrunba ñimiño hori dago, balak ateratzen duena.	9
ogi puska samurra pertsone on-ona, bihotz onekoa	...Bob Handia barne, hart handia. Ogi puska samurra .	26
ohartarazpen abisua	Gero ohartarazpeneko ahots hark nire izena esan zuen. Joateko mesedez atean zain nuen airelineako ordezkariagana.	54
oi hortz-haginen ingurua (encía)	Nire masailean dudana eta ipurtzulo baten itxurakoa den zuloko izkinek zakur baten hortz- oien kolore ubel beltzarana daukate.	129



oldarka indarrean, abidan eta bultzaka	...gizon talde bat oldarka sartu zela maila oneko auzo bateko auto saltoki batean...	179
orbain zaurien marka sendatua (cicatriz)	Besterik gabe, ez dut aurpegian bat ere orbainik gabe hil nahi, esan diot.	62
orban zikununea, mantxa	...galtzetan odol lehortuzko orban beltz handi eta kurruskatsuak ditudala, KAIXO esaten diet laneko guztiei. KAIXO!	84
orburu alkatxofa, artixota	...Tyler platerak kentzen aritu zen emakumearen aurretik: lehenik, orburu hotzak; gero, txahalki hotza...	107
ordu txiki goizaldeko ordu bat, ordu biak...	eta han, goizeko ordu txiki etan, Marla eta tyler entzuten dituzu Tylerren gelan, elkarri "zerri zikin" deika.	84
orpoz orpo atzetik	Orpoz orpo jarraitu diot sukaldera, ezetz esanez.	118
ospa alde (agindua)	Marla, iruzurti alaena, ospa hemendik.	27
otarrainxka krustazeo mota, ganba	...Tylerrek galtzetan sartu duen buztan okertuak kolore arrosa baitu, egositako otarrainxka handi batek bezala.	112
otxabutu haunditu, zabalago egin	... otxabutu zulotxo barauts haundiago batez...	251
parafina gai likatsua	Batzuek nitroarekin nahasitako parafina erabiltzen dute.	10
parpaila brodatua, puntilla	...pilotu uniforme zirudien: alkandora zuria sorbalda parpaila txikiekin eta gorbata urdina.	55
patu zoria, destinoa	Eraman gaitzazu gure patura . Ekariezaguz bakea.	50
piltzartuta urratuta, zati luzetan hautsita	Irudikatu lurreraino iristen diren gortinak, eztandaren ondorioz piltzartuta , haize beroan erretzen.	53
pisu astuna	Hartu bat eta sorbalda lokatuko duzu. Hain dira pisuak .	31
pitokeria tontakeria	Pitokeriarik ez?	211
pitzatu zartatua, arrakalatua	...binilozko eserleku pitzatuak ipurdia ziztatzen didala jeansetan barrena zehar...	117
pix-erreka txizaldia, txiz parrastada	...baina gero garrasika hasi naiz: — Bob, pix-erreka bat egin behar diat.	26
saltokigune merkataritza-gunea	Edo saltokigune bateko sarreran antolatutako moda erakustaldi batera joan...	162
sarekada atxiloketa piloa	...poliziak egindako sarekadaz galdetu zenidan.	216
sarin-gas gas hilgarria, gerretan erabilia	Galdetu nola egiten den sarin-gasa . O, eta bonba auto horiek guztiak: egundokoak.	12
sarraila ireki-ixteko mekanismoa	Detektibeak azaldu zidan norbaitek freoi-spray bat isuri zuela sarrailan , eta gero hotzeko zizel batez jo zutela zilindroa puskatzeko.	147
sarrarazi behartu sartzera	...eskumuturretatik heldu, eta barrura sarrarazi du Tyler.	79
sigi-sagaka zig-zag edo eseak eginez	Sigi-sagaka luzatu zara, hiru edo lau eserleku hartuz, belaunak tolestuta...	35
sikiera behintzat, bederen	Ondoan duenaren ile-adatsei begiratuko balie sikiera .	26
soin-adar gorputz atala	...odol-laginen eta moztutako soin-adar zatien artean...	206



suharki gartsuki, bizi	Gehien maite dituen gauzak, dio Marlak, jendeak hain suharki maite dituen eta, ondoren, ordubete edo egun bete ondoren bota egiten dituen horiek dira.	88
sumatu igarri, nabaritu	...ikusleek film-bobina bat hasten den eta beste bat amaitzen den ebakiduraneua suma ez dezaten.	31
suntsitu deuseztu, birrindu	...eraikinaren labarreko hormigoi kiskalian ireki duen zulo suntsitu bat bihurtuz.	53
tarratata-hots danbateko jarraia, arma batena	...hirurogei fotograma segundo batean, Gatling metrailadore baten tarratata hotsa bezala.	32
terapeutiko sendagarria	Kontaktu fisikoa terapeutikoa zen, esan zuen Chloek.	21
tiradera kaxoia	...beste armairu artxibategi bat ikusi baitugu eraikinaren ertzean agertzen. Tiraderak ireki egin dira zero zabalean, eta paper zuri pila bat...	12
trapu eginda egon sats eginda, total eginda	...Albertek dio etxeko nagusi andrea trapu egina dagoela oraintxe. Albertek jaso behar izan omen du komunaren ondotik.	109
trebatu prestakuntza eman	Zure lantxoa egiten duzu, horretarako trebatu baitzaituzte.	10
triskantza sarraskia, birrinketa	Triskantza proiektuko Kalteen batzordeko tximino astronautak zorakilo dabilta historiako puska oro suntsituz.	11
turrusta parrastada, txorrotada	Beste leiho batek egin du eztanda, eta kristal- turrusta bat atera da eraikinetik, uso-saldo dirdiratsu baten modura...	11
txakra eremua	...eta gorantz zihola, belaunetara, gerrira eta bularrera. Gure txakrak zabaltzen ari ziren. Bihotzeko txakra. Buruko txakra.	21
txapal-txapal ondo zapalduta	Txapal-txapal utzi behar dugu gelignita, eta hondar-zakuekin hertsatuta, zutabearen kontra egin dezan eztanda...	12
txatxu ergela, mozoloa	Tyler txatxu bat zen, zabor hutsa.	150
txilibitu-hots txistu soinua	Txilibitu-hots bat entzungo duzu.	251
ubel more kolorekoa	Nire masailean dudan eta ipurtzulo baten itxurakoa den zuloko izkinek zakur baten hortz-oien kolore ubel beltzarana daukate.	129
ubeldu beltzunea, ubelunea	Ubelduz betetako buruak elkartuta.	234
ukabil esku itxia	Marlak arnasa hartzeari utzi dio, sabelak danbor bat dirudi, eta, bihotzak danborraren azal tenkatuaren azpitik gorantz jotzen duen ukabil bat.	137
ukalondo ukondoa	Nagusiak beste orri bat ekarri du nire mahaira, eta ukalondoaren alboan utzi dut.	171
urdanga emagaldua, zikina	...Tyler daukat nire aurrean, xurgamarkaz betea, eta esan dit urdanga gaizto bat dela Marla, baina izugarri gustatzen zaiola hori.	77
urrats pausoa	...Tylerrek pistola bat dauka nire aho barruan indarrez sartuta, esanez heriotza dela betiereko bizitzarako lehen urratsa .	9
usain sunda (usaina edo kiratsa)	...azkenekoz prestatutako janari usaina izango dute, edo komunera egin duzun azken bisitaren ondorioz sortutako usaina .	52
uzkurrarazi txikiago, bilduago egotea eragin	Arroila Handiaren tamainako bagina bat oihartzun eta guzti, edo lau solairuren altuera duen eta odol-presioak uzkurrarazten duen zakil bat.	37
xehatu xerra finak egin	... xehatutako alberjina more bat dirudien sudurraren goitik begiratu behar baitizu irribarre egiteko.	215
xingola zinta	Poliziak krimen-eszenetarako erabiltzen duen xingola horia jira eta bira dabil.	259
xurgamarka txupoia, hurrupaden marka	...lepoalde eta bularralde osoa xurgamarkaz beteta duela etorri da Tyler.	75



xuxurlaka murmurikatu, ahapeka hitz egin	...Tyler nire ondoan jartzen zen, haren bularra niere sorbaldaren kontra, nire belarrira xuxurlaka , ni beste belarrian telefonoa nuen bitartean.	146
zamalkatu larrua jo	Chloek nire lepoaren kontra bota zuen arnasa: zamalkatu ; gainean jarri eta eman; ea ulertzen nion. Txortan egiteak denboraren joana azkartzen zuen.	20
zanpatuta aplastatuta	Boben titi izerditsuen arteko iluntasunean zanpatuta .	15
zapuztuta mukertuta, defraudatuta	Ikusleak zure kontra ari dira irainka. Ikusleak, bai, beren ametsetako filma zapuztuta gelditu delako...	33
zarakar geruza zikina, ugerra, (costra)	...besoan dituen herdoil koloreko orbanak garbitu dizkiot, erredurten gaineko zarakarrak zartatzen eta odola	
zartarazi eztandarazi	Eraispen taldeak lehen karga aktibatuko du, beharbada zortzi minutu barru. Lehen kargak oinarritzko karga zartaraziko du...	13
zerraldo hilda bezala	Orduan, zerraldo erori zen nire besoetatik lurrera.	166
zerrauts zerrakina, serrina	Nahasi nitroa zerrautsarekin , eta plastikozko lehegailu polit bat duzu.	10
zeruertz ortzimuga, horizontea	Urruntzen ari da nire eskua, txiki-txiki ikusten dut, errepide amaierako zeruertzean .	98
zigarrokin zigorro muturra, amaierakoa	Tyler goiko solairuan dago, eta sukaldeari zigarrokinen eta erretako ileen usaina dario.	85
zikiratu irendu, barrabilak kendu	...ez dugu inor inoiz gehiago zikiratuko .	255
zira kapusaia, anoraka	...barnean, zira hori zikin bat soinean daraman suiltzaile bat erori beharrean dagoen sabaiko panel erre bat jotzen ari da.	249
zirrargarri emoziozkoa, hunkitzen duena	Bigarren puntu zuriak esan nahi du bost segundo falta direla. Zirrargarria .	32
zizare lurreko har luzea	...hor zabiltza, arrastaka eta, hurrena, ongari hotza zara, zizareentzako buffeta.	45
zizel lanabesa, zulatzeko-edo kolpeka	Detektibeak azaldu zidan norbaitek freoi-spray bat isuri zuela sarrailan, eta gero hotzeko zizel batekin jo zutela zilindroa puskatzeko.	147
zorakilo ero samar, zoratuta bezala	Triskantza proiektuko kalteen batzordeko tximino astronautak zorakilo dabiltza historiako puska oro suntsituz.	11
zotin zinkurinka, hipaka, negar-dardar	Negarrez ari hintzen, zotinka eta intzirika.	209
zupada zupaldia, kalada	Gioznak negarrez jarraitzen du Marlaren lepoaren kontra, eta hark beste zupada bat eman dio zigarretari.	25